

AURREKONTU GASTUAK ETA SARRERAK

- 1.- Hiritartze kuotak**
- 2.- Hirigintzako aprobetxamenduak**
- 3.- Nominaren aurrerakinak**
- 4.- Gizarte Segurantzako atxikipenak eta ordainketak**
- 5.- Sarreraren itzulketa**
- 6.- Udalak Finantzatzeko Foru Fondoaren likidazioa**
- 7.- Udal zergen likidazioa: udalaren aldeko saldoa**
- 8.- Udal zergen likidazioa: Aldundiaren aldeko saldoa**
- 9.- Udal zergen bilketako kudeaketaren kostua**
- 10.- Ordainketen itzulketak**

1. Udalak hirigintza jarduera bat egin du lankidetzaren sistemaren bidez, eta hiritartze gastuak finantzatzeko behar diren ekarpenak exijitu dizkie terrenei. Nola tratamendua eman behar die udalak sarrera horiei aurrekontuetan eta kontabilitatean?

Baliabide horiek sarreraren 6. kapituluko, "Inbertsio errealak besterenganatzen eta hirigintzako jardueretatik ondorioztatutako beste sarrera batzuk" kapituluko, 65001 "Hiritartze kuota" azpikontzeptuari egotzi behar zaizkio.

Aurrekontuetako azpikontzeptu eta ondareko azpikontuen arteko korrespondentzia taulan (taula ekonomikoa), 65001 azpikontzeptua 7430 azpikontuari, "Hiritartze kuotengatik sarrerak", lotuta egongo da. Udalaren kontu planean kontu hori ez badago, alta eman beharko zaio aldez aurretik.

Beraz, eragiketa hori jaso ahal izateko, SIGEn alta emango zaio RI eragiketa bati; besteak beste, horrek ondoko idazpenak sortuko ditu ondare kontabilitatean:

- (4300) Eskubide onartuengatik zordunak.
Urteko ekitaldia
- (7430) Hiritartze kuotengatik sarrerak
- (TS) Diruzaintza
- (4300) Eskubide onartuengatik zordunak.
Urteko ekitaldia

2. Hirigintzako araudiak, jabeen legezko betebeharren artean, jasotzen du udalen aldeko aprobetxamenduaren kokalekuan dauden terrenei lagatzea, jabetza pribatukoa izango dena gaituzteagatik. Aipatu araudian bestelako aukera ere jasota dago: jabeek aprobetxamendu hori eskuratzea hirigintzako balioaren truke, aplikaziozko hirigintzako legeriak xedatutakoaren arabera. Nola kontabilizatu behar du udalak terrenotan ala eskudirutan gauzatutako aipatu aprobetxamendua?

a) Aprobetxamendua terrenotan gauzatuta dago.

Baldin eta hirigintzako aprobetxamendua terrenotan gauzatzen bada, ez du eraginik izango aurrekontuan, gauza bidezko eragiketa izateagatik.

Ondare kontabilitatean, halere, jaso egin beharko da eragiketa hori, ibilgetuko kontuen saldoa gehituta, alde batetik, eta sarreraren kontrapartida gehituta, bestetik. Erabili beharreko sarreraren kontua 7440 "Hirigintzako aprobetxamenduengatik sarrerak" izango da. Udalaren kontu planean kontu hori ez badago, alta eman beharko zaio aldez aurretik.

Beraz, eragiketa hori jaso ahal izateko, SIGEn alta emango zaio OC eragiketa bati; horrek ondoko idazpena sortuko du ondare kontabilitatean:

- (2300) Lurrak (ULO)
- (7440) Hirigintzako aprobetxamenduengatik sarrerak

b) Aprobetxamenduaren ordezkurdirutan ordaintzen da.

Baldin eta hirigintzako aprobetxamenduaren ordezkurdirutan ordaintzen bada, eragiketaren eragina izango du aurrekontuetan, eta diruzaintzako gerakina handituko du.

Eragiketa horregatik lortutako baliabideak 6. kapituluaren, "Inbertsio errealek besterenganatsetik eta hirigintzako jardueretatik ondorioztatutako beste sarrera batzuk" kapituluaren, egotzi behar dira, hain zuzen, 65101 azpikontzeptuan.

Aurrekontuetako azpikontzeptu eta ondareko azpikontuen arteko korrespondentzia taulan (taula ekonomikoa), 65101 azpikontzeptua 7440 azpikontuari lotuta egongo da, "Hirigintzako aprobetxamenduengatik sarrerak". Udalaren kontu planean azpikontu hori ez badago, alta eman beharko zaio aldez aurretik.

Beraz, eragiketa hori jaso ahal izateko, SIGEn alta emango zaio RI eragiketa bati; besteak beste, horrek ondoko idazpenak sortuko ditu ondare kontabilitatean:

(4300) Eskubide onartuengatik zordunak.
Urteko ekitaldia
(7440) Hirigintzako aprobetxamenduengatik sarrerak
(TS) Diruzaintza
(4300) Eskubide onartuengatik zordunak.
Urteko ekitaldia

3. Udalak nomina aurreratutako langile bati. Nola kontabilizatu behar du udalak eragiketa hori?

Nominaren aurrerakina kontabilizatzeko, lehendabizi zehaztu beharko da epe labur edo luzeko eragiketa ote den. Zentzu horretan, epe laburreko eragiketatzat har daiteke, baldin eta aurrerakina osorik itzultzen bada hori eman eta ondorengo urtea amaitu baino lehen.

a) Nominaren epe laburreko aurrerakina

Eman dezagun, adibidez, udalak 3.600 euro aurreratzen dituela, eta 12 hilabetetan itzuli behar zaizkiola 300na euroko ordainketaldiak eginez.

Eman dezagun aurrerakina langilearen hileko ondoko nominan zenbatekoak deskontatuz amortizatzen dela:

Nominaren zenbateko gordina:	2.000
Langilearen Errentaren atxikipena	-400
Langilearen Giz. Seg.aren kuotaren atxik.	-300
Nominaren zenbateko garbia	1.300
Aurrerakinaren amortizazioa	-300
Ordaintzekoa:	1.000

Era berean, eman dezagun, errazte aldera, langileak nomina aurrekontu partida bakar baten kargura kobratzen duela; adibidez: 451.12001 (Funtzionarioen oinarritzko ordainsariak. Kultura).

Aurrerakinaren emakida eta ordainketa ADOP eragiketa bati alta emanda jasoko da SIGEn. Ondoko hauei egotzi beharko zaie eragiketa hori:

- 121 programa funtzionalari (Administrazio orokorra).
- 82301 azpikontzeptu ekonomikoari (Pertsonalaren epe laburreko aurrerakinak).

Adibidean:

Eragiketa	Partida	Zbt. gordina	Deskontua
ADOP	121.823.01 Pertsonalaren epe lab. aurrerakinak	3.600,00	

Eragiketa horrek ondoko idazpenak sortuko ditu automatikoki, besteak beste:

3.600,00	(5440) Langileen aldeko epe laburreko aurrerakinak		
	(4000) Obligazio onartuengatik hartzekodunak. Urteko ekit.		3.600,00
3.600,00	(4000) Obligazio onartuengatik hartzekodunak. Urteko ekit		
	(TS) Diruzaintza		3.600,00

Nominaren ordainketa eta hartan jasotako kenkarien ordainketa eragiketa hauek erregistratuz kontabilizatuko da:

- ADOP eragiketa bati alta emango zaio, 1. kapituluko partiden kargura. Eragiketa horri, alde batetik, Errenta Zergaren atxikipenari eta langilearen Gizarte Segurantzaren kuotari dagozkien deskontuak egingo zaizkio; bestetik, beste deskontu bat erabiliko da, formalizazioan, aurrerakinaren amortizazioaren zenbatekoari dagokiona. Adibidean:

Eragiketa	Partida	Zbt. gordina	Deskontua
ADOP	451.120.01 Langileen oin.ord. Kultura	2.000,00	1.000,00

Eragiketa horrek ondoko idazpenak sortuko ditu automatikoki, besteak beste:

2.000,00	(6400) Soldata eta alokairuak		
	(4000) Obligazio onartuengatik hartzekodunak. Urteko ekit		2.000,00
2.000,00	(4000) Obligazio onartuengatik hartzekodunak. Urteko ekit		
	(4755) Herri Ogas. Hartzekod. beste zerg. kon.		400,00
	(4760) Giz.aurreik. organismo hartzekodunak		300,00
	(5790) Formalizazioa		300,00
	(TS) Diruzaintza		1.000,00

- RI eragiketa bati alta emango zaio, formalizazioan, aurrerakinaren amortizazioaren zenbatekoari dagokiona. Adibidean:

Eragiketa	Partida	Zbt. gordina	Deskontua
RI	823.01 Pertson.epe lab.aurrerak. itzulketa	300,00	300,00

Eragiketa horrek ondoko idazpenak sortuko ditu automatikoki, besteak beste:

300,00	(4300) Eskubide onartuengatiko zordunak. Urteko ekit.	
	(5440) Pertsonalari emandako epe labur. kredituak	300,00

300,00	(5790) Formalizazioa	
	(4300) Eskubide onartuengatiko zordunak. Urteko ekit.	300,00

b) Nominaren epe luzeko aurrerakina

Aurreko kasuaren moduan jokatu da, baina berezitasun hauek kontuan hartuta:

- Aurrekontuen ikuspuntutik, aurrerakinaren emakida gastuen egoerako 83301 "Pertsonalaren epe luzerako aurrerakinak" azpikontzeptu ekonomikoari egotziko zaio,.
- Aurrekontuen ikuspuntutik, aurrerakinaren amortizazioa sarreraren egoerako 83301 "Pertsonalaren epe luzerako aurrerakinen itzulera" azpikontzeptu ekonomikoari egotziko zaio.
- Aurrerakinaren emakida ondare kontabilitatean jaso behar da, 2540 "Pertsonalarentzako epe luzerako kredituak" azpikontuan kargua eginez.
- Gainera, urtero zorraren zati bat epe luzetik epe laburrera pasa beharko da, OC eragiketa bati alta emanda. Eragiketa horrek ondoko idazpena sortuko du ondare kontabilitatean:

300,00	(5440) Pertsonalari emandako epe laburrerako kredituak	
	(2540) Pertsonalarentzako epe luzerako kredituak	300,00

- Aurrerakinaren amortizazioa ondare kontabilitatean jaso behar da, 5440 "Pertsonalari emandako epe laburrerako kredituak" azpikontuan kargua eginez.

4. Nola kontabilizatu behar da Gizarte Segurantzaren kuota langileari atxikitzea? Nola kontabilizatu behar da Gizarte Segurantzari ordaintzea bai langileari atxikitako kuota, bai udalaren kargura doan kuota?

Adibidez, eman dezagun, hileko nominan ondoko kontzeptuak sartuta daudela:

Nominaren zenbateko gordina:	2.000
Langilearen Errentaren atxikipena	-400
Langilearen Giz. Seg.aren kuotaren atxik.	-300
Nominaren zenbateko garbia	1.300
Udalaren kargura doan GSren kuota	1.500

Era berean, eman dezagun, errazte aldera, langile guztiek nomina aurrekontu partida bakar baten kargura kobratzen dutela; adibidez: 451.12001 (Funtzionarioen oinarritzko ordainsariak. Kultura).

Nominaren ordainketa, hor sartutako kenkariak barne, eta udalaren kargura doan Gizarte Segurantzaren kuotaren obligazio onarpena kontabilizatzeko eragiketa hauek erregistratuko dira:

- ADOP eragiketa bati alta emango zaio, 1. kapituluko partidaren kargura. Eragiketa horri bi deskontu egingo zaizkio: alde batetik, Errenta Zergaren atxikipenari dagokiona; eta bestetik, langilearen Gizarte Segurantzaren kuotari dagokiona. Adibidean:

Eragiketa	Partida		Zbt. gordina	Deskontua
ADOP	451.120.01	Langileen oin.ord. Kultura	2.000,00	700,00

Aldez aurretik, Errenta Zergaren eta Gizarte Segurantzaren atxikipenei dagozkien deskontuak sortu behar dira (SIGEren CP-TA-7 transakzioa), eta hurrenez hurren 4755 "Ogasun Publikoa, bestelako kontzeptu fiskalengatiko hartzekodun" kontua eta 4760 "Gizarte aurreikuspeneko erakundeak, hartzekodun" kontua lotuko zaizkie.

Eragiketa horrek ondoko idazpenak sortuko ditu automatikoki, besteak beste:

2.000,00	(6400)	Soldata eta alokairuak		
	(4000)	Obligazio onart. hartzekodunak. Urteko ekit.		2.000,00
2.000,00	(4000)	Obligazio onart. hartzekodunak. Urteko ekit.		
	(4755)	Ogasun Pub., beste. kontzep. fisk. hartzek.		400,00
	(4760)	Giz.aurreik. erakundeak, hartzekodun		300,00
	(TS)	Diruzaintza		1.300,00

- ADOP eragiketa bati alta emango zaio, 1. kapituluko partidaren kargura, udalaren kargura doan Gizarte Segurantzaren kuotaren kopurukoa. Eragiketa hori likidorik gabe erregistratuko da, eta Gizarte Segurantzari dagokion deskontua aplikatuko zaio. Adibidean:

Eragiketa	Partida		Zbt. gordina	Deskontua
ADOP	451.160.01	Gizarte Segurantza. Kultura	1.500,00	1.500,00

Eragiketa horrek ondoko idazpena sortuko du ondare kontabilitatean:

1.500,00	(6420)	Enplegu emailearen kargurako gizarte kotizazioak		
	(4000)	Obligazio onart. hartzekodunak. Urteko ekit.		1.500,00
1.500,00	(4000)	Obligazio onart. hartzekodunak. Urteko ekit.		
	(4760)	Giz.aurreik. erakundeak hartzekodun		1.500,00

Behin ondare kontabilitatean ADOP eragiketa horiek egin eta gero, 4760 "Gizarte aurreikuspeneko erakundeak, hartzekodun" kontuan bi apunte azalduko dira hartzekoen atalean, hurrenez hurren langilearen eta udalaren kargura doazen kuotei dagozkienak.

- Gizarte Segurantzari ordaintzean, aurrekontuz kanpoko ordainketa bati (PE) alta emango zaio 4760 "Gizarte aurreikuspeneko erakunde hartzekodunak" kontuaren kargura, hari ordaindutako zenbatekoaz. Adibidean:

Eragiketa	Kontrapartidako kontua		Zbt. gordina	Deskontua
PE	4760	Giz.aurr. erakundeak, hartzekodun	1.800,00	

Eragiketa horrek ondoko idazpena sortuko du ondare kontabilitatean:

1.800,00	(4760) Giz.aurreik. erakundeak, hartzekodun	
	(TS) Diruzaintza	1.800,00

Idazpen hori egin ondoren, 4760 "Gizarte aurreikuspeneko erakundeak, hartzekodun" kontua kitatuta geratuko da.

Horrela, udalaren kargura doan Gizarte Segurantzaren partidak ez du izango ordaintzeko saldorik aurrekontuko balantzeetan. Udalak erakunde horrekin duen zorra, sortu eta ondorengo hilabeteen ordainduko dena, aurrekontuz kanpoko izango da, eta 4760 "Gizarte aurreikuspeneko erakundeak, hartzekodun" kontuaren saldo hartzekodunean jasota geratuko da.

5. Udalak 1.000 euroko ordainketa bat egin du Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineke Zergan aurrez egindako sarrera baten itzulketa dela eta. Nola erregistratu behar da eragiketa hori kontabilitatean?

Aurrez egindako sarrerak itzultzeko egindako ordainketak era ezberdinetan kontabilizatu behar dira, itzulketa egiteko arrazoia araberak. Hala, kasu hauek bereizi egin behar dira:

a) Sarreraren itzulketa, okerreko likidazioak deuseztatu izanagatik.

Sarreraren itzulketak, okerreko likidazioak deuseztatu izanagatik gertatu direnean, urteko aurrekontuari aplikatuko zaizkio, dagokion aurrekontu kontzeptuaren bilketa gutxituta, kontuan hartu gabe zein urtetako aurrekontuari aplikatu zitzaion aurrez egindako sarrera.

Beraz, itzulketa mota horren kontabilizazioak berarekin ekar dezake aurrekontu exekuzio negatiboa duten partidak egotea (eskubide onartuak eta kobru negatiboak).

SIGEn, itzulketa mota hori OCRI/ eragiketa bati alta emanez kontabilizatzen da (edo, bestela, OCD eragiketa bat eta, segidan, RI/ eragiketa bat), CP-OI-2 transakzioaren bidez (eman dezagun aurrez kontabilizatuta dagoela, RI eragiketaren bidez, orain itzultzen den sarrera).

Eragiketa	Partida	Zbt. gordina	Deskontua
OCRI/	113.01 Trak. Mek. Ibilgailuen Zerga	1.000,00	

Ondare kontabilitatean, itzulketak idazpen hauek sortuko ditu, besteak beste:

1.000,00	(7203) Trak. Mek. Ibilgailuen Zerga	
	(4040) Sarreraren itzulketagatiko hartzekodunak	1.000,00
1.000,00	(4040) Sarreraren itzulketagatiko hartzekodunak	
	(TS) Diruzaintza	1.000,00

b) Sarrera bikoiztuen edota soberakoak itzulketa.

Sarrera bikoiztuak edota soberakoak, baita horien itzulketa ere, aurrekontuz kanpoko eragiketatzat hartuko dira.

Atal honetan, aurrez eskubide likidaturik sortu ez duten sarreraren itzulketa jasotzen da; bestela izanez gero, a) ataleko kasuan egongo ginateke.

Eragiketa	Kontrapartidako kontua		Zbt . gordina	Deskontua
IE	4190	Aurr. kanpoko beste hartz.	1.000,00	

Eragiketa	Kontrapartidako kontua		Zbt. gordina	Deskontua
PE	4190	Aurr. kanpoko beste hartz.	1.000,00	

Eragiketa	Partida	Zbt. gordina	Deskontua
I/	113.01 Trak. Mek. Ibilgailuen Zerga	1.000,00	1.000,00

Eragiketa	Kontrapartidako kontua	Zbt. gordina	Deskontua
IE 4190	Aurr. kanpoko beste hartz.	1.000,00	1.000,00

Ondoko idazpena sortuko da eragiketa horren ondorioz:

1.000,00 (5790) Formalizazioa
(4190) Aurr. kanpoko beste hartzekodunak 1.000,00

- Aurrekontuz kanpoko PE ordainketa bati alta emango zaio (CG-OP-12 transakzioa), likidoa duena, 4190 "Aurrekontuz kanpoko bestelako hartzekodunak" kontua kontrapartida gisa erabilita.

Eragiketa	Kontrapartidako kontua		Zbt. gordina	Deskontua
PE	4190	Aurr. kanpoko beste hartz.	1.000,00	

Ondoko idazpena sortuko da eragiketa horren ondorioz:

1.000,00 (4190) Aurr. kanpoko beste hartzekodunak
(TS) Diruzaintza 1.000,00

Horrela, aurrekontu katean R eragiketa bat geratuko da beti, kobratu gabe, eta zergadunak azkenik zorra ordaintzen duenean kitatuko da I dokumentuaren bidez.

6. Nola kontabilizatzen da Udalak Finantzatzeko Foru Fondoaren likidazioa?

Udalak Finantzatzeko Foru Fondoaren likidazioa kontabilizatzeke modua desberdina da, udalaren aldeko saldoa zorduna izan edo hartzekoduna izan.

a) Udalaren aldeko saldoa

Eman dezagun urtean zehar udalak 200.000 euro jaso dituela, Udalak Finantzatzeko Foru Fondoaren kontura. Era berean, eman dezagun ondorengo urteko otsailean behin betiko likidazioa egiten dela eta horretan udalari 250.000 euroko partaidetza esleitzen zaiola. Beraz, likidazio saldoa 50.000 eurokoa izango da, udalaren aldekoa.

Likidazio hori bere zenbatekoa ezagutzean kontabilizatuko da (hurrengo urteko otsailean), eragiketa hauen bidez:

- R eragiketa bat (eskubide onartua) kontabilizatuko da, abenduaren 31koa, likidazioaren saldoaz, Udal Fondoaren partidaren kargura. Adibidean:

Eragiketa	Data	Partida	Zbt. gordina	Deskontua
R	31-12	420.01 Partaidetza zerga itunduetan	50.000,00	

Eragiketa horrek, besteak beste, ondoko idazpena sortuko du ondare kontabilitatean:

50.000,00 (4300) Eskubide onartuengatik zordunak. Urteko ekitaldia
(7510) Jasotako transferentzi eta subentzio arruntak 50.000,00

- I eragiketa bati (kobrua) emango zaio alta, likidazioa kobratu den eguneko (hurrengo urteko otsailekoa), Udal Fondoaren gerakinen partidaren kargura. Adibidean:

Eragiketa	Data	Partida	Zbt. gordina	Deskontua
I gerakinak	Otsaila	420.01 Partaidetza zerga itunduetan	50.000,00	

Eragiketa horrek, besteak beste, ondoko idazpena sortuko du ondare kontabilitatean:

50.000,00	(TS) Diruzaintza	
	(4310) Eskubide onartuengatikoz zordunak. Itxitako ekit.	50.000,00

b) Foru Aldundiaren aldeko saldoa

Eman dezagun urtean zehar udalak 200.000 euro jaso dituela, Udalak Finantzatzeko Foru Fondoaren kontura. Era berean, eman dezagun ondorengo urteko otsailean behin betiko likidazioa egiten dela eta horretan udalari 180.000 euroko partaidetza esleitzen zaiola. Beraz, likidazio saldoa 20.000 eurokoa da, Foru Aldundiaren aldekoa. Era berean, eman dezagun otsailaren 25ean kitatzen duela udalak zor hori, lehen hiruhilabeteko ordain aldian egindako kenketaren bidez.

Lehen hiruhilabeteko ordain aldia:	60.000
Aurreko ekitaldiko likidazioaren saldoaren kenkaria	20.000
Likidoa, jasotzekoa	40.000

Likidazio hori bere zenbatekoa ezagutzean kontabilizatuko da (hurrengo urteko otsailean), eragiketa hauen bidez:

- OCRI/ eragiketa bat kontabilizatuko da, abenduaren 31koa, formalizazioan, itzuli behar den zenbatekoaz, Udal Fondoaren partidaren kargura. Adibidean:

Eragiketa	Data	Partida	Zbt. gordina	Deskontua
OCRI/	12-31	420.01 Partaidetza zerga itunduetan	-20.000,00	-20.000,00

Eragiketa horrek, besteak beste, ondoko idazpenak sortuko ditu ondare kontabilitatean:

20.000,00	(7510) Jasotako transferentzi eta subentzio arruntak	
	(4040) Sarrerren itzulketagatik hartzekodunak	20.000,00
20.000,00	(4040) Sarrerren itzulketagatik hartzekodunak	
	(5790) Formalizazioa	20.000,00

- Aurrekontuz kanpoko sarrera bat (IE) kontabilizatuko da, abenduaren 31koa, formalizazioan, itzuli behar den zenbatekoaz, kontrapartida gisa 4190 "Aurrekontuz kanpoko bestelako hartzekodunak" kontua erabiliz. Adibidean:

Eragiketa	Data	Kontrapartidako kontua	Zbt. gordina	Deskontua
IE	12-31	4190 Aurr. kanpoko beste hartzekod.	20.000,00	20.000,00

Ondoko idazpena sortuko da automatikoki eragiketa horren ondorioz:

20.000,00	(5790) Formalizazioa	
	(4190) Aurr. kanpoko beste hartzekodunak	20.000,00

- RI eragiketa bat kontabilizatuko da, otsailaren 25ekoa, lehen hiruhilabeteko ordainketa gordinaren zenbatekoaz, urteko ekitaldiko Udal Fondoaren partidaren kargura. Sarrera-aginduari deskontu bat egingo zaio, formalizazioan, itzuli beharreko zenbatekoaz. Adibidean:

Eragiketa	Data	Partida	Zbt. gordina	Deskontua
RI	2-25	420.01 Partaidetza zerga itunduetan	60.000,00	20.000,00

Eragiketa horrek, besteak beste, ondoko idazpenak sortuko ditu ondare kontabilitatean:

60.000,00 (4300) Eskubide onartuengatiko zordunak. Urteko ekit.
(7510) Jasotako transferentzi eta subentzio arruntak 60.000,00

40.000,00 (TS) Diruzaintza
20.000,00 (5790) Formalizazioa
(4300) Eskubide onartuengatiko zordunak. Urteko ekit 60.000,00

- Aurrekontuz kanpoko ordainketa bat (PE) kontabilizatuko da, otsailaren 25ekoa, formalizazioan, itzuli den zenbatekoaz, kontrapartida gisa 4190 "Aurrekontuz kanpoko bestelako hartzekodunak" kontua erabiliz (). Adibidean:

Eragiketa	Data	Kontrapartidako kontua	Zbt. gordina	Deskontua
PE	2-25	4190 Aurr. kanpoko beste hartzekod.	20.000,00	20.000,00

Ondoko idazpena sortuko da automatikoki eragiketa horren ondorioz:

20.000,00 (4190) Aurr. kanpoko beste hartzekodunak
(5790) Formalizazioa 20.000,00

7. Udalak Foru Aldundiari utzi dio OHZ eta JEZ zergen bilketaren kudeaketa, eskuordetzan. Hilean behin, udalak konturako emateak jasotzen ditu kontzeptu horiengatik, eta ondorengo urteko otsailean likidazioa egiten da, bilketaren benetako datuak kontuan hartuta. Likidazio horrek, osotasunean, udalaren aldeko saldoa du, eta aipatu otsailean ordaintzen da. Nola kontabilizatu behar dira eragiketa horiek?

Adibidez, eman dezagun likidazioaren emaitza ondoko hau dela:

OHZ, landalurra	-1.000
OHZ, hirilurra	-5.000
JEZ. Jarduera enpresarialak	15.000
JEZ. Jarduera profesional eta artistikoak	4.500
Kudeaketa kostua	-2.000
Amaierako saldoa (udalaren aldekoa)	11.500

Honelaxe kontabilizatuko da eragiketa hau:

a) Abenduaren 31ko dataz eta itxi beharreko ekitaldiko aurrekontuaren kargura:

- R eragiketak kontabilizatuko dira, saldo positiboa duten partiden kargura, saldo horren zenbatekoaz. Adibidean:

Eragiketa	Data	Partida	Zbt . gordina	Deskontua
R	12-31	130.01 JEZ. Jarduera enpresarialak	15.000,00	
R	12-31	130.02 JEZ. Jard. profes. eta art.	4.500,00	

Besteak beste, ondoko idazpena sortuko da automatikoki eragiketa horien ondorioz:

19.500,00	(4300)	Zordunak eskubide onartuengatik. Urteko ekitaldia	
	(7205)	JEZ. Jarduera enpresarialak	15.000,00
	(7206)	JEZ. Jard. profes. eta art.	4.500,00

- OCRI/ eragiketak kontabilizatuko dira, formalizazioan, saldo negatiboa duten partiden kargura, saldo horien zenbatekoaz. Adibidean:

Eragiketa	Data	Partida	Zbt. gordina	Deskontua
OCRI/	12-31	112.01 OHZ. Landalurrak	-1.000,00	-1.000,00
OCRI/	12-31	112.02 OHZ. Hirilurrak	-5.000,00	-5.000,00

Eragiketa horiek ondoko idazpenak sortuko dituzte automatikoki, besteak beste:

1.000,00	(7201)	OHZ. Landalurrak	
5.000,00	(7202)	OHZ. Hirilurrak	
	(4040)	Sarreraren itzulketagatiko hartzekodunak	6.000,00
6.000,00	(4040)	Sarreraren itzulketagatiko hartzekodunak	
	(5790)	Formalizazioa	6.000,00

- ADO eragiketa bat kontabilizatuko da, kudeaketa kostuaren zenbatekoaz. Eragiketa hori 611 programa funtzionalari egotzi beharko zaio (Administrazioa eta kudeaketa ekonomiko-finantzarioa), eta 227.09 azpikontzeptu ekonomikoari (Entitatearen aldeko zergabilketako zerbitzuak). Adibidean:

Eragiketa	Data	Partida	Zbt. gordina	Deskontua
ADO	31-12	611.227.09 Kudeaketa kostua	2.000,00	

Besteak beste, ondoko idazpena sortuko da automatikoki eragiketa horren ondorioz:

2.000,00	(6230)	Lanbide zerbitzu independenteak	
	(4000)	Eskubide onartuengatik hartzekodunak. Urteko ekita.	2.000,00

- Aurrekontuz kanpoko IE sarrera bat kontabilizatuko da, formalizazioan, OCRI/ eragiketen zenbatekoen baturaz, kontrapartida gisa 4190 "Aurrekontuz kanpoko bestelako hartzekodunak" kontua erabilita. Adibidean:

Eragiketa	Data	Kontrapartidako kontua	Zbt. gordina	Deskontua
IE	12-31	4190 Aurr. kanpoko beste hartzekod.	6.000,00	6.000,00

Ondoko idazpena sortuko da automatikoki eragiketa horren ondorioz:

6.000,00	(5790)	Formalizazioa	
	(4190)	Aurr. kanpoko beste hartzekodunak	6.000,00

b) Likidazio saldoaren kobru dataz (otsaila), eta ekitaldi berriko aurrekontuaren kargura:

- I eragiketak kontabilizatuko dira, gerakinen partiden kargura, zati bat likidoa dutena eta beste zati bat formalizazioan. Formalizazioaren zenbatekoa bat etorriko da ondoko PE dokumentuaren zenbatekoaren eta kudeaketa kostuaren arteko baturarekin. Adibidean:

Eragiketa	Data	Partida		Zbt. gordina	Deskontua
I gerakinak	Otsaila	130.01	JEZ. Jarduera enpresarialak	15.000,00	8.000,00
I gerakinak	Otsaila	130.02	JEZ. Jard. profes. eta art.	4.500,00	0,00

Gomendatzen da partiden arteko deskontua zenbateko handieneko partidetatik hasita banatzea, aplikatu beharreko deskontu osoa amaitu bitartean.

Ondoko idazpena sortuko da automatikoki eragiketa horien ondorioz:

11.500,00	(TS) Diruzaintza	
8.000,00	(5790) Formalizazioa	
	(4310) Eskubide onartuengatiko zordunak. Itxitako ekit.	19.500,00

- Aurrekontuz kanpoko PE ordainketa bat kontabilizatuko da, formalizazioan, saldo negatiboen zenbatekoen baturaz, kontrapartida gisa 4190 "Aurrekontuz kanpoko bestelako hartzekodunak" kontua erabilita.

Eragiketa	Data	Kontrapartidako kontua		Zbt. gordina	Deskontua
PE	Otsaila	4190	Aurr. kanpoko beste hartz.	6.000,00	6.000,00

Ondoko idazpena sortuko da automatikoki eragiketa horren ondorioz:

6.000,00	(4190) Aurr. kanpoko beste hartzekodunak	
	(5790) Formalizazioa	6.000,00

- P eragiketa bat kontabilizatuko da, gerakinen partidari, formalizazioan, kudeaketa kostuaren zenbatekoaz. Adibidean:

Eragiketa	Data	Partida		Zbt. gordina	Deskontua
P gerakinak	Otsaila	611.227.09	Kudeaketa kostua	2.000,00	2.000,00

Ondoko idazpena sortuko da automatikoki eragiketa horren ondorioz:

2.000,00	(4010) Obligazio onartuengatiko hartzekodunak. Itxitako ekit.	
	(5790) Formalizazioa	2.000,00

8. Udalak Foru Aldundiari utzi dio OHZ eta JEZ zergen bilketaren kudeaketa, eskuordetzan. Hilean behin, udalak konturako emateak jasotzen ditu kontzeptu horiengatik, eta ondorengo urteko otsailean likidazioa egiten da, bilketaren benetako datuak kontuan hartuta. Likidazio horrek, osotasunean, Foru Aldundiaren aldeko saldoa du, eta aipatu otsailean konpentsatzen da, seinalamendu edo konturako emate berrien kuotetatik kenduta. Nola kontabilizatu behar dira eragiketa horiek?

Adibidez, eman dezagun likidazioaren emaitza ondoko hau dela:

OHZ. Landalurrak	-1.000
OHZ. Hirilurrak	-5.000
JEZ. Jarduera enpresarialak	6.000
JEZ. Jarduera profesional eta artistikoak	500
Kudeaketa kostua	-2.000
Amaierako saldoa (Aldundiaren aldekoa)	1.500

Era berean, eman dezagun saldo hori otsaileko seinalamendu edo konturako emateekin konpentsatzen dela. Esaterako:

KONTURAKO ORDAINKETAK	63.000
OHZ Landalurrak	10.000
OHZ. Hirilurrak	20.000
JEZ. Jarduera enpresarialak	25.000
JEZ. Jarduera profesional eta artistikoak	8.000
KENKARIAK	1.500
Likidazioaren saldoa	1.500
KOBRATZEKO ZENBATEKO LIKIDOA	61.500

Honelaxe kontabilizatuko da eragiketa hori:

a) Abenduaren 31ko dataz eta itxi beharreko ekitaldiko aurrekontuaren kargura:

- RI eragiketak kontabilizatuko dira, formalizazioan, saldo positiboa duten partiden kargura, saldo horien zenbatekoaz. Adibidean:

Eragiketa	Data	Partida	Zbt. gordina	Deskontua
RI	12-31	130.01 JEZ. Jarduera enpresarialak	6.000,00	6.000,00
RI	12-31	130.02 JEZ. Jard. profes. eta art.	500,00	500,00

Eragiketa horiek ondoko idazpenak sortuko dituzte automatikoki, besteak beste:

6.500,00	(4300)	Eskubide onartuengatik zordunak. Urteko ekita.	
		(7205) JEZ. Jarduera enpresarialak	6.000,00
		(7206) JEZ. Jard. profes. eta art.	500,00
6.500,00	(5790)	Formalizazioa	
		(4300) Eskubide onartuengatik zordunak. Urteko ekita.	6.500,00

- OCRI/ eragiketak kontabilizatuko dira, formalizazioan, saldo negatiboa duten partiden kargura, saldo horren zenbatekoaz. Adibidean:

Eragiketa	Data	Partida	Zbt. gordina	Deskontua
OCRI/	12-31	112.01 OHZ. Landalurrak	-1.000,00	-1.000,00
OCRI/	12-31	112.02 OHZ. Hirilurrak	-5.000,00	-5.000,00

Eragiketa horiek ondoko idazpenak sortuko dituzte automatikoki, besteak beste:

1.000,00	(7201)	OHZ. Landalurrak		
5.000,00	(7202)	OHZ. Hirilurrak		
	(4040)	Sarreraren itzulketagatiko hartzekodunak		6.000,00
6.000,00	(4040)	Sarreraren itzulketagatiko hartzekodunak		
	(5790)	Formalizazioa		6.000,00

- ADOP eragiketa bat kontabilizatuko da, formalizazioan, kudeaketa kostuaren zenbatekoaz. Eragiketa hori 611 programa funtzionalari egotzi beharko zaio (Administrazioa eta kudeaketa ekonomiko-finantzarioa), eta 227.09 azpikontzeptu ekonomikoari (Entitatearen aldeko zergabilketako zerbitzuak). Adibidean:

Eragiketa	Data	Partida	Zbt. gordina	Deskontua
ADOP	12-31	611.227.09 Kudeaketa kostua	2.000,00	2.000,00

Eragiketa horrek ondoko idazpenak sortuko ditu automatikoki, besteak beste:

2.000,00	(6230)	Lanbide zerbitzu independenteak		
	(4000)	Obligazio onartuengatiko hartzekodunak. Urteko ekita.		2.000,00
2.000,00	(4000)	Obligazio onartuengatiko hartzekodunak. Urteko ekita.		
	(5790)	Formalizazioa		2.000,00

- Aurrekontuz kanpoko IE sarrera bat kontabilizatuko da, formalizazioan, itzultzeko kopuru osoaren zenbatekoaz, kontrapartida gisa 4190 "Aurrekontuz kanpoko bestelako hartzekodunak" kontua erabilita. Adibidean:

Eragiketa	Data	Kontrapartidako kontua	Zbt. gordina	Deskontua
IE	12-31	4190 Aurr. kanpoko beste hartzekod.	1.500,00	1.500,00

Ondoko idazpena sortuko da automatikoki eragiketa horren ondorioz:

1.500,00	(5790)	Formalizazioa		
	(4190)	Aurr. kanpoko beste hartzekodunak		1.500,00

b) Zorraren konpentsazio dataz (otsaileko seinalamenduen ordainketa) eta ekitaldi berriko aurrekontuaren kargura:

- RI eragiketak kontabilizatuko dira, seinalamenduen zenbatekoaz, eta deskontu bat aplikatuko zaie (formalizazioan), konpentsatutako zenbatekoaz. Adibidean:

Eragiketa	Data	Partida		Zbt. gordina	Deskontua
RI	Otsaila	112.01	OHZ. Landalurrak	10.000,00	0,00
RI	Otsaila	112.02	OHZ. Hirilurrak	20.000,00	0,00
RI	Otsaila	130.01	JEZ. Jarduera enpresarialak	25.000,00	1.500,00
RI	Otsaila	130.02	JEZ. Jard. profes. eta art.	8.000,00	0,00

Gomendatzen da partiden arteko deskontua zenbateko handieneko partidetatik hasita banatzea, aplikatu beharreko deskontu osoa amaitu bitartean.

Eragiketa horiek ondoko idazpenak sortuko dituzte automatikoki, besteak beste:

63.00,00	(4300)	Eskubide onartuengatiko zordunak. Urteko ekit.			
		(7201)	OHZ. Landalurrak		10.000,00
		(7202)	OHZ. Hirilurrak		20.000,00
		(7205)	JEZ. Jarduera enpresarialak		25.000,00
		(7206)	JEZ. Jard. profes. eta art.		8.000,00
61.500,00	(TS)	Diruzaintza			
1.500,00	(5790)	Formalizazioa			
		(4300)	Eskubide onartuengatiko zordunak. Urteko ekit.		63.000,00

- Aurrekontuz kanpoko PE ordainketa bat kontabilizatuko da, formalizazioan, konpentsatutako zenbatekoaz, kontrapartida gisa 4190 "Aurrekontuz kanpoko bestelako hartzekodunak" kontua erabilia.

Eragiketa	Data	Kontrapartidako kontua		Zbt. gordina	Deskontua
PE	Otsaila	4190	Aurr. kanpoko beste hartzekod.	1.500,00	1.500,00

Ondoko idazpena sortuko da automatikoki eragiketa horren ondorioz:

1.500,00	(4190)	Aurr. kanpoko beste hartzekodunak			
		(5790)	Formalizazioa		1.500,00

9. Udalak Foru Aldundiari utzi dio OHZ eta JEZ zergen bilketaren kudeaketa, eskuordetzan. Udalak, konpentsazio gisa, bildutakoaren gaineko portzentajea ordaintzen dio Aldundiari urtero, kudeaketa kostua dela eta. Zein aurrekontu partidari egotzi behar zaio gastu hori?

Hona hemen kudeaketa kostua zein aurrekontu partidari egotzi behar zaion:

a) Programa funtzionala:

Gastu hori sailkapen funtzionalaren 611 programari (Administrazioa eta kudeaketa ekonomiko-finantzarioa) egotzi behar zaio, errenten eta zergabilketen arloko gainerako gastuekin batera.

b) Azpikontzeptu ekonomikoa

Gastu hori sailkapen ekonomikoaren 22709 "Entitatearen aldeko bilketa zerbitzuak" azpikontzeptu ekonomikoari egotzi behar zaio.

10. Udalak ekainaren 1ean 200 euroko sarrera bat jaso du bere kontu korrontean, lehendik egindako mailegu interesen ordainketa baten itzulketa dela eta. Nola kontabilizatu behar da eragiketa hori?

Bi kasu bereizi beharko dira orain itzuli den ordainketa zein aurrekonturi egotzi zitzaion kontuan hartuz.

a) Urteko aurrekontuko itzulketa.

Urteko aurrekontuko itzulketatzat hartzen da aurrekontu ekitaldi berean gertatu direnean obligazioaren onarpena, ordainketa materiala eta itzulketa, kreditua birgaitu daitekeelarik itzulitakoaren zenbateko berdinean.

Urteko aurrekontuko itzulketak OP/, DOP/ edo ADOP/ eragiketen bitartez kontabilizatuko dira, saldoak berriz birgaitu behar diren fasearen arabera. Eragiketa horiek aurretiazko eragiketa positiboak egotzi zitzaizkion aurrekontuko partida berari egotziko zaizkio orain. Adibidean:

Eragiketa	Data	Partida	Zbt. gordina	Deskontua
ADOP/	Ekainak 1	011.332.01 E.L. maileguen interesak	200,00	0,00

SIGEn, eragiketa horri alta emango zaio CP-OG-03 transakzioaren bidez. Lehendabiziko pantailan, informazio hau sartu beharko da:

- ‘Operación’ eremuan, “otros reintegros” izeneko taldekoari (eta bakarrik talde horretakoa) dagokiona hautatu beharko da: ADOP/, DOP/, OP/, ADOJP/ edo OJP/, saldoak berriz birgaitu behar diren fasearen arabera.
- “Referencia” eremuan, “E” aukeratuko da (erreferentzia ekonomikoa).
- “Tipo anulación” eremuan ‘1’ edo ‘2’ aukeratuko da, itzulketa sarrera eginez edo egin gabe burutzen ote den kontuan hartuta, hurrenez hurren. Adibidean, ‘1’ jarri beharko litzateke:

Ondare kontabilitatean, itzulketak, besteak beste, idazpen hauek sortuko ditu (P/ eta O/ faseei dagozkienak):

200,00	(TS) Diruzaintza		
	(4270) Itzulketak. Urteko ekitaldia		200,00
200,00	(4270) Itzulketak. Urteko ekitaldia		
	(5791) Fondoen irteera materialik gabe		200,00
-200,00	(4000) Obligazio onartuengatiko hartzekodunak. Urteko ekit.		
	(5791) Fondoen irteera materialik gabe		-200,00
-200,00	(6620) Epe luzerako zorren interesak		
	(4000) Obligazio onartuengatiko hartzekodunak. Urteko ekit.		-200,00

b) Ekitaldi itxietako itzulketa.

Ekitaldi itxietako itzulketatzat hartzen da aurrekontu ekitaldi berean ez direnean gertatu obligazioaren onarpena, ordainketa materiala eta itzulketa.

Ekitaldi itxietako itzulketak sarreraren aurrekontuko eragiketatzat hartzen dira, eta urteko ekitaldiko (ez gerakinetako) 380.01 "Itxitako ekitaldiei dagozkien itzulketak" azpikontzeptu ekonomikoari aplikatuko zaizkio. Adibidean:

Eragiketa	Data	Partida		Zbt . gordina	Deskontua
RI	Ekainak 1	380.01	Ekit. itxietako itzulketak	200,00	0,00

Ondare kontabilitatean, itzulketa horrek ondoko idazpenak sortuko ditu besteak beste:

200,00	(4300)	Eskubide onartuengatiko zordunak. Urteko ekit.	
	(7491)	Itzulketak	200,00
200,00	(TS)	Diruzaintza	
	(4300)	Eskubide onartuengatiko zordunak. Urteko ekit.	200,00